**GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA**

IRAGARKIA, Trenbideen Sektoreari buruzko azaroaren 17ko 39/2003 Legean ezarritakoa hausteagatik zehapen-espedienteak irekitzen dituzten Garraio eta Herri Lan sailburuordearen ebazpenak jakinarazteko dena. 18362

IRAGARKIA, Trenbideen Sektoreari buruzko azaroaren 17ko 39/2003 Legean ezarritakoa hausteagatik irekitako zehapen-espedienteen gaineko ebazpen-proposamenak jakinarazteko dena. 18364

IRAGARKIA, Trenbideen Sektoreari buruzko azaroaren 17ko 39/2003 Legean ezarritakoa hausteagatiko zehapen-espedienteen gainean Garraio eta Herri Lan sailburuordeak emandako ebazpenak jakinarazteko dena. 18366

**DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS**

ANUNCIO por el que se notifican las Resoluciones del Viceconsejero de Transportes y Obras Públicas, incoatorias de los expedientes sancionadores abajo indicados, en relación a infracciones de la Ley 39/2003, de 17 de noviembre, del Sector Ferroviario. 18362

ANUNCIO por el que se notifican las propuestas de resolución de los expedientes sancionadores abajo indicados, en relación a infracciones de la Ley 39/2003, de 17 de noviembre, del Sector Ferroviario. 18364

ANUNCIO por el que se notifican las resoluciones del Viceconsejero de Transportes y Obras Públicas, de los expedientes sancionadores abajo indicados, en relación a infracciones de la Ley 39/2003, de 17 de noviembre, del Sector Ferroviario. 18366

# Xedapen Orokorrak

**JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA**

**4175**

5/2008 LEGEA, ekainaren 19koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu era arautzen duena.

Eusko Legebiltzarrak ekainaren 19ko 5/2008 Legea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia Sortu eta Arautzen duena, onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei.

5/2008 Legea, ekainaren 19koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia Sortu eta Arautzen duena.

ZIOEN AZALPENA

Garapenerako lankidetza nabarmen hazi da azken aldi honetan Euskal Autonomia Erkidegoan, herritarren elkartasuneko urte asko eta lankidetza publikoko bi hamarkada baino gehiago igaro ondoren. Bilakaera horren mugarri gisa, Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legeak jarduera horrek Euskadin dituen printzipioak, helburuak eta lehentasunak bideratzen ditu, eta oro har ezartzen du zeintzuk diren eragileak eta tresnak.

1/2007 Lege horrek honako hau aurreikusten du, azken xedapenetako lehenengoan: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia arduratuko da garapenerako lankidetzaren arloko politikaren plangintza egiteaz eta politika hori koordinatu, kudeatu eta egikaritzeaz, eta horretarako, berariazko lege bat sortu beharko da. Hain zuzen ere, lege honen helburua aurreikuspen hori betetzea da, aipaturiko agentzia hori sortuz eta arautuz.

# Disposiciones Generales

**PRESIDENCIA DEL GOBIERNO**

**4175**

LEY 5/2008, de 19 de junio, por la que se crea y regula la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo.

Se hace saber a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente Ley:

Ley 5/2008, de 19 de junio, por la que se crea y regula la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La cooperación para el desarrollo en la Comunidad Autónoma de Euskadi es una realidad que ha crecido notablemente, tras muchos años de solidaridad ciudadana y más de dos décadas de cooperación pública. Como hito en esta evolución, la Ley 1/2007, de 22 de febrero, de Cooperación para el Desarrollo, orienta los principios, objetivos y prioridades de esta actividad en Euskadi y establece con carácter general cuáles son sus agentes e instrumentos.

Dicha Ley 1/2007, en su disposición final primera, prevé que la elaboración de la planificación de la política en materia de cooperación al desarrollo, así como la coordinación, gestión y ejecución de la misma, se llevará a cabo por la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, a crear por una ley específica. Precisamente, es objeto de la presente ley dar cumplimiento a esa previsión, creando y regulando la mencionada agencia.

Administrazio Instituzionalaren barruan garapenerako lankidetzako berariazko erakunde bat eratzeko funtsezko arrazoia honetan datza, batik bat: politika publiko hori egikaritzeko egitura eta tresnak politika horrek azken urteotan izan duen hazkundera egokitzeko beharrean, eta egikaritze hori 1/2007 Legeak aipatzen eta hitzartzen dituen eraginarekin eta kalitatearekin egiteko beharrera egokitu beharrean. Eusko Jaurlaritza laurogeiko urteen erdialdean beste herrialde batzuekin lankidetzan jarduteko diru-baliabideak bideratzen hasi zenetik orain arte, aurrekontuetako zuzkidura eta tresnak oso modu nabarmenean hazi dira; era berean, ekintzen kopurua eta ekintzon konplexutasuna ere nabarmen igo dira. Hori guztia dela eta, asmoa da Eusko Jaurlaritzak bultzatzen duen garapenerako lankidetzako politika egikaritzeaz arduratzen den berariazko erakunde bat eratzea.

Bestalde, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortzea bide egokia izan daiteke Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorretakoez kanpoko beste ekarpen batzuk kudeatzeko. Bereziki, agentzia izaera irekiz diseinatzen da, eta beste euskal erakunde publiko batzuei irekirik egongo da, erakunde horiek gai honetan duten autonomia errespetatuz, 1/2007 Legeak 14. artikuluan aitortzen duen bezala.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren sorrera bat dator Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzeko den azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren III. tituluak Administrazio Instituzionalari buruz jasotzen dituen xedapen orokorrekin, eta gainera haietan oinarritzen da. Hori dela eta, lege honek zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren izaera juridikoa aukeratzen du, horixe baita erakunde horren zereginetara ongien egokitzen dena.

Legeak erakunde publiko baten oinarrizko arauketa sortzen eta ematen duen arau bati dagokion egitura du, eta, hori dela eta, hau jasotzen du:

– Legearen xedea.

– Agentziaren izaera eta araubide juridikoa.

– Helburuak, ahalmenak eta administrazio-jardunaren printzipioak.

– Egoitza.

– Gobernu-organoak eta organoon eginkizunak.

– Egitura.

– Araubide ekonomikoa.

– Langileen araubidea.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren gobernu-organoei dagokienez, Lehendakaritzaz, Lehendakariordetzaz eta Zuzendaritzaz gain, erakundean kide anitzeko organo bat egotea aurreikusten da, Kontseilu Errektorea, eginkizun zabalak izango dituena, eta erakunde berriaren egituraren definizio orokor bat aurreratzen da.

La razón fundamental para constituir un organismo específico para la cooperación para el desarrollo dentro de la Administración Institucional está en la necesidad de adaptar la estructura e instrumentos para la ejecución de dicha política pública al crecimiento que ha tenido ésta en los últimos años y a la necesidad de que dicha ejecución se realice con el impacto y la calidad a los que la Ley 1/2007 apunta y compromete. Desde que el Gobierno Vasco comenzara a mediados de los ochenta a destinar recursos económicos para cooperar con otros países hasta el momento presente, la dotación presupuestaria y los instrumentos han crecido de manera muy notable, lo mismo que el volumen de las acciones y la complejidad de las mismas. Por todo ello, el planteamiento es el de constituir un organismo específico encargado de ejecutar la política de cooperación para el desarrollo impulsada por el Gobierno Vasco.

Por otra parte, la creación de una Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo se presenta como un cauce propicio para la gestión de otras aportaciones diferentes de las de los presupuestos generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi. En particular, la agencia se diseña con carácter abierto a otras instituciones públicas vascas, desde el respeto a la autonomía de éstas en la materia, reconocida por la Ley 1/2007 en su artículo 14.

La creación de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo encaja y se inspira en las disposiciones generales que sobre la Administración Institucional recoge el título III del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco. En este sentido, la presente ley opta por la naturaleza jurídica de ente público de derecho privado, por ser la que mejor se ajusta a los quehaceres del organismo.

La ley tiene la estructura propia de una norma que crea y dicta la regulación básica de un organismo público, por lo que su articulado recoge:

– Objeto de la ley.

– Naturaleza y régimen jurídico de la agencia.

– Fines, facultades y principios de actuación administrativa.

– Sede.

– Órganos de gobierno y funciones de éstos.

– Estructura.

– Régimen económico

– Régimen de personal.

En lo referido a los órganos de gobierno de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, además de la Presidencia, Vicepresidencia y Dirección, se prevé la existencia en el ente de un órgano colegiado, el Consejo Rector, con amplias funciones, y se avanza una definición general de la estructura del nuevo organismo.

Gorago adierazitakoa horrela bada ere, lege honek garapen bat eduki beharko du, agentziaren antolaketari dagozkion alderdiak zehazte aldera. Horretarako, dagokion antolaketa- eta funtzionamendu-araudia eman beharko da.

***1. artikulua.–*** Legearen xedea.

Lege honen xedea da Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortzea eta arautzea, garapenerako politikaren plangintza prestatzeaz arduratuko den erakunde publikoa izan dadin, bai eta politika hori koordinatu, kudeatu eta egikaritzeaz arduratu dadin ere. Garapenerako politikaren helburua, bestalde, pobreziaren aurka borrokatzea eta garatze-bidean diren herrialdeetan giza garapen iraunkorra sustatzea izango da.

***2. artikulua.–*** Izaera eta araubide juridikoa.

1.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia nortasun juridiko propioa duen zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da, bere helburuak betetzeko jarduteko gaitasuna du, eta garapenerako lankidetzaren arloan eskuduna den Jaurlaritzako sailari atxikirik dago.

2.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia lege honek, bere antolaketa eta funtzionamenduko erregelamenduak eta haiek garatzeko xedapenek arautuko dute. Bere egitekoak gauzatzean zuzenbide pribatuari jarraituko dio, batik bat; baina Administrazioaren ahalak baliatzen dituenean -zuzeneko esleipenaren bidez edo eskuordetzaren bidez- zuzenbide publikoari atxikiko zaio. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorraren gaiei dagokienez, espresuki aplikatzekoak zaizkion xedapenei jarraituko die, eta, xedapen horiekiko kontraesanik ez dagoenean, zuzenbide pribatuari.

***3. artikulua.–*** Helburuak eta eginkizunak.

1.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak xedetzat du Eusko Jaurlaritzaren garapenerako lankidetzako politikaren plangintza prestatzea eta politika hori koordinatzea, kudeatzea eta egikaritzea, garapenerako lankidetzaren arloan eskuduna den sailak ezartzen dituen jarraibideei jarraituz.

2.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, honako eginkizun hauek ditu egotzirik:

a) Garapenerako lankidetzako politika egikaritzea, Garapenerako Lankidetzari buruzko Legean eta plangintzako tresnetan ezarritakoari jarraituz eta Eusko Jaurlaritzako sail eskudunaren jarraibideei lotuz.

b) Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan garapenerako lankidetzara bideraturiko baliabide ekonomiko eta materialak kudeatzea.

c) Jasotzen dituen funts publiko eta pribatuen beste zernahi transferentzia kudeatzea. Baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio publiko batek garapenerako lankidetzara bideraturiko diru-baliabideak erregularki transferitzea erabakitzen badu, ekarpen

Sin perjuicio de lo anterior, la presente ley deberá ser objeto de desarrollo para concretar los diferentes aspectos organizativos de la agencia, para lo cual deberá dictarse el correspondiente reglamento de organización y funcionamiento.

***Artículo 1.–*** Objeto de la ley.

El objeto de la presente ley es la creación y regulación de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, como organismo público encargado de elaborar la planificación de la política de cooperación para el desarrollo, así como de la coordinación, gestión y ejecución de la misma, en orden a luchar contra la pobreza y promover el desarrollo humano sostenible en los países empobrecidos.

***Artículo 2.–*** Naturaleza y régimen jurídico.

1.– La Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo es un ente público de derecho privado, con personalidad jurídica propia y capacidad de obrar para el cumplimiento de sus fines, adscrito al departamento del Gobierno Vasco competente en materia de cooperación para el desarrollo.

2.– La Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo se regirá por la presente ley, su reglamento de organización y funcionamiento y las disposiciones que los desarrollen. En el ejercicio de sus cometidos se regirá fundamentalmente por el derecho privado, si bien cuando ejerza potestades administrativas, por atribución directa o delegación, se sujetará al derecho público, y, en relación con las materias propias de la Hacienda General del País Vasco, por las disposiciones referentes a las mismas que le sean de expresa aplicación y, en lo que nos las contradigan, por el derecho privado.

***Artículo 3.–*** Fines y funciones.

1.– La Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo tiene por objeto elaborar la planificación y coordinar, gestionar y ejecutar la política de cooperación para el desarrollo del Gobierno Vasco, siguiendo las directrices establecidas por el departamento competente en cooperación para el desarrollo.

2.– La Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo tiene atribuidas las funciones siguientes:

a) Ejecutar la política de cooperación para el desarrollo, según lo establecido por la Ley de Cooperación para el Desarrollo y los instrumentos de planificación y siguiendo las directrices del departamento competente del Gobierno Vasco.

b) Gestionar los recursos económicos y materiales destinados a la cooperación para el desarrollo en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

c) Gestionar cualesquiera otras transferencias de fondos públicos y privados que reciba. En el caso de que otra administración pública del País Vasco acordara con el Gobierno Vasco la transferencia regular de recursos económicos destinados a cooperación para el desarro-

hori agentziak kudeatuko du, hitzarmen baten bidez zehazten diren baldintzen arabera.

d) Garapenerako Lankidetzako Eragileen Erregistroa kudeatzea.

e) Eusko Jaurlaritza aholkatzea garapenerako lankidetzako politikaren plangintzan. Horretarako, agentziak plangintzaren orientabide orokorrak eta lau urteko gidaplanaren eta urteko planen proposamena prestatuko ditu, garapenerako lankidetzan eskuduna den sailburuaren bidez Eusko Jaurlaritzari helarazteko. Plan horiek Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legeak ezarririkoaren arabera onartuko dira.

f) Lankidetzako politika publikoaren eta haren eraginaren urteko ebaluazioak egitea, bai eta politika horren ekintzen eta tresnena ere.

g) Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzak garapenerako lankidetzarekin erlazionatuta egiten dituen jardueren koherentzia bultzatzea, Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legeak finkaturiko printzipio eta helbururen esparruan.

h) Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordeari, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluari eta lankidetzako eragileei laguntzea eta babesa ematea.

i) Indarrean dauden xedapenek egozten dizkioten gainerakoak.

j) Garapen-politikak beste administrazio batzuekin eta alde biko edo alde anitzeko beste agentzia batzuekin koordinatzen laguntzea tokiko eremuan, autonomia-erkidegoetan, Estatuan, Europar Batasunean eta Nazio Batuetan.

k) Betiere interlokuzioa izatea lankidetzako gizarte-eragileekin.

l) Euskal Autonomia Erkidegotik larrialdietarako ematen den laguntza humanitarioa koordinatzea.

m) Garapenerako sentsibilizaziora eta heziketara bideratutako ekintzak bultzatzea eta egikaritzea.

n) Agentziaren helburuak lortzen lagunduko duten ekimen publiko eta pribatuak babestea eta bultzatzea.

ñ) Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuei eta beste euskal administrazio publiko batzuei laguntza eta lankidetza eskaintzea garapenerako lankidetzarekin lotutako ekimenak garatzeko.

3.– Artikulu honetako aurreko paragrafoan zerrendatu diren eginkizunak, betiere, emakume eta gizonen berdintasuneko helburua modu aktiboan kontuan izanik garatuko dira.

***4. artikulua.***– Ahalmenak.

Bere eginkizunak betetzeko, betiere kasu bakoitzean aplikagarri den araudiaren barruan, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak honako hauek egin ahal izango ditu:

llo, dicha aportación será gestionada por la agencia según los términos que por convenio se señalen.

d) Gestionar el Registro de Agentes de Cooperación para el Desarrollo.

e) Asesorar al Gobierno Vasco en la planificación de la política de cooperación para el desarrollo. A tal fin, la agencia elaborará, para su elevación al Gobierno Vasco a través del consejero o consejera competente en cooperación para el desarrollo, las orientaciones generales de planificación y las propuestas de plan director cuatrienal y de planes anuales, que será aprobados según lo establecido por la Ley 1/2007, de 22 de febrero, de Cooperación para el Desarrollo.

f) Realizar evaluaciones anuales de la política pública de cooperación y de su impacto, así como de sus acciones e instrumentos.

g) Impulsar la coherencia de las actividades relacionadas con la cooperación para el desarrollo de los diferentes departamentos del Gobierno Vasco, en el marco de los principios y objetivos señalados por la Ley 1/2007, de 22 de febrero, de Cooperación para el Desarrollo.

h) Apoyar y dar asistencia a la Comisión Interinstitucional de Cooperación para el Desarrollo, al Consejo Vasco de Cooperación para el Desarrollo y a los agentes de cooperación.

i) Las demás que le atribuyan las disposiciones vigentes.

j) Contribuir a la coordinación de las políticas de desarrollo con otras administraciones y agencias bilaterales y multilaterales, en los ámbitos local, autonómico y estatal, de la Unión Europea y las Naciones Unidas.

k) Mantener la interlocución con los agentes sociales de cooperación.

l) Coordinar la ayuda humanitaria de emergencia que se preste desde la Comunidad Autónoma de Euskadi.

m) Impulsar y ejecutar actuaciones dirigidas a la sensibilización y la educación para el desarrollo.

n) Apoyar e incentivar iniciativas públicas o privadas que contribuyan a los fines de la agencia.

ñ) Prestar apoyo y colaboración a otros departamentos del Gobierno Vasco y otras administraciones públicas vascas en el desarrollo de iniciativas relacionadas con la cooperación para el desarrollo.

3.– Las funciones enumeradas en el apartado anterior del presente artículo serán desarrolladas teniendo en cuenta de manera activa el objetivo de igualdad de mujeres y hombres.

***Artículo 4.***– Facultades.

Para el cumplimiento de sus funciones, y siempre dentro de la normativa aplicable en cada caso, la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo podrá:

a) Garapenerako lankidetzako programa, proiektu eta gainerako ekimenak, pobreziaren aurka borrokatzera eta jarduera-sektoreen arabera giza garapen iraunkorra sustatzera bideratuta daudenak, identifikatzea, formulatzea, egikaritzea eta segimendua eta ebaluazioa egitea.

b) Garapenerako lankidetzako programa, proiektu eta gainerako ekimenak gauzatzeko laguntza eta diru-laguntza publikoen deialdiak kudeatzea. Agentziaren diru-laguntza arloko jarduera, bere izaera juridikoarekin bateragarri den gai guztietan, diru-laguntzak arautzen dituen araudian xedaturikoaren mende egongo da. Arau horiek Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginean jasotzen dira.

c) Beste administrazio publiko batzuetatik laguntzak eta diru-laguntzak lortzea, bai eta zeinahi pertsona edo erakunde publikotatik ere, eta dohaintza pribatuak.

d) Beharrezko diren administrazio- eta xedapen-egintzak eta eragiketa ekonomiko eta finantzarioak gauzatzea, bere xedeen barruan.

e) Bere eginkizunak betetzeak eskatzen dituen hitzarmen eta kontratuak egitea, kasu bakoitzean aplikagarri den araudiari atxikiz.

***5. artikulua.–*** Administrazio-jardunaren printzipioak.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legearen 3. artikuluan ezarritako printzipio gidariez gainera, honako printzipio hauek izango ditu gidari bere administrazio-jardunean:

a) Gardentasun eta parte-hartze printzipioa, herritarrei kontu emateari eta bere helburuen betetzeko parte-hartze sozialari dagokienez.

b) Autonomia- eta erantzukizun-printzipioa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari ahalmena ematen baitzaio bere helburuak betetze aldera bere esku jarritako bitartekoak autonomiaz kudeatzeko.

c) Administrazioen arteko eta instituzio mailako lankidetza-printzipioa, hau da, sailen arteko eta instituzioen arteko lankidetzarako jarrera.

d) Kalitatearen eta etengabeko hobekuntzaren printzipioa.

e) Etika profesionalaren eta erantzukizun publikoaren printzipioa.

***6. artikulua.–*** Egoitza.

1.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren egoitza Vitoria-Gasteizen finkatzen da.

2.– Bere eginkizunak gauzatzeko, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak Euskadiren atzerriko ordezkaritzen laguntza eduki ahal izango du.

a) Identificar, formular, ejecutar y realizar el seguimiento y la evaluación de programas, proyectos y demás iniciativas de cooperación para el desarrollo, orientadas a la lucha contra la pobreza y la promoción del desarrollo humano sostenible en el ámbito de los diferentes sectores de actuación.

b) Gestionar convocatorias públicas de ayudas y subvenciones para la realización de programas, proyectos y demás iniciativas de cooperación para el desarrollo. La actividad subvencional de la agencia se someterá, en todo lo que sea compatible con su naturaleza jurídica, a lo dispuesto en la normativa reguladora de subvenciones recogida en el texto refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

c) Obtener ayudas y subvenciones de otras administraciones públicas, así como de cualesquiera personas y entidades públicas, y donaciones privadas.

d) Realizar los actos de administración y disposición y las operaciones económicas y financieras que resulten necesarios dentro de sus fines.

e) Celebrar los convenios y contratos que requiera el cumplimiento de sus funciones, con sujeción a la normativa en cada caso aplicable.

***Artículo 5.–*** Principios de actuación administrativa.

La Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, además de los principios orientadores que establece el artículo 3 de la Ley 1/2007, de 22 de febrero, de Cooperación para el Desarrollo, ajustará su actuación a los siguientes principios de actuación administrativa:

a) Principio de transparencia y participación, en lo que se refiere a la rendición de cuentas ante la ciudadanía y a la participación social para el cumplimiento de sus objetivos.

b) Principio de autonomía y responsabilidad, en tanto que se le confiere a la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo capacidad para gestionar con autonomía los medios puestos a su disposición en orden a cumplir sus fines.

c) Principio de cooperación interadministrativa y participación institucional, entendidos como la disposición a la colaboración interdepartamental e interinstitucional.

d) Principio de calidad y mejora continua.

e) Principio de ética profesional y responsabilidad pública.

***Artículo 6.–*** Sede.

1.– La sede de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo se establece en Vitoria-Gasteiz.

2.– Para el ejercicio de sus funciones, la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo podrá contar con el apoyo de las delegaciones de Euskadi en el exterior.

***7. artikulua.–*** Gobernu-organoak.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren gobernu-organoak Lehendakaritza, Kontseilu Errektorea eta Zuzendaritza dira.

***8. artikulua.–*** Lehendakaritza eta Lehendakariordetza.

1.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Lehendakaritza garapenerako lankidetzan eskuduna den sailburuari egokituko zaio, eta honako eginkizun hauek izango ditu:

a) Agentziaren ordezkari instituzional gorena izatea.

b) Agentziari ezarritako helburuak bete daitezen zaintzea.

c) Kontseilu Errektorearen erabakiak bete daitezen zaintzea.

d) Urteko planen kudeaketa, egikaritze eta ebaluazioaren berri ematea urtero Eusko Legebiltzarrean.

e) Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamenduak esleitzen dion beste zernahi eginkizun.

2.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Lehendakariordetza garapenerako lankidetzan eskuduna den sailburuordeari egokituko zaio, eta Lehendakaritzaren titularra ordezkatuko du hura kanpoan edo gaixorik dagoenean.

***9. artikulua.–*** Kontseilu Errektorea.

1.– Kontseilu Errektorea Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren erabaki, administrazio eta kontroleko organo nagusia da, eta honako osaera hau izango du:

a) Lehendakaritza agentziako lehendakariari egokituko zaio, edo lehendakariordeari haren ordez.

b) Lau kide, Eusko Jaurlaritzako beste sail eta erakunde batzuen ordezkari gisa, agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamenduak ezartzen duenaren arabera.

c) Hiru kide, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa, kontseilu horrek bere alde soziala osatzen duten kideen artean aukeratuak.

d) Bi kide, Eusko Legebiltzarraren ordezkari gisa.

e) Idazkaritza agentziako zuzendariari egokituko zaio, eta hura ere Kontseilu Errektoreko eskubide osoko kide izango da.

2.– Baldin eta, lege honetako 3.2 artikuluaren c) idatz-zatiak aurreikusten duenez, agentziarentzako diru-ekarpen erregularrik egongo balitz beste euskal administrazio publiko batzuetatik, Eusko Jaurlaritzak egoki irizten dizkion aldaketak sartu ahal izango ditu, erregelamendu bidez, Kontseilu Errektorearen osaeran.

***Artículo 7.–*** Órganos de gobierno.

Los órganos de gobierno de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo son la Presidencia, el Consejo Rector y la Dirección.

***Artículo 8.–*** Presidencia y Vicepresidencia.

1.– La Presidencia de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo corresponderá al consejero o consejera competente en cooperación para el desarrollo y tendrá las siguientes funciones:

a) Ostentar la representación institucional máxima de la agencia.

b) Velar por la consecución de los objetivos asignados a la agencia.

c) Velar por el cumplimiento de los acuerdos del Consejo Rector.

d) Informar anualmente en el Parlamento Vasco sobre la gestión, ejecución y evaluación de los planes anuales.

e) Cualesquiera otras que le confieran el reglamento de organización y funcionamiento de la agencia.

2.– La Vicepresidencia de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo corresponderá al viceconsejero o viceconsejera competente en cooperación para el desarrollo y sustituirá a la persona titular de la Presidencia en casos de ausencia o enfermedad.

***Artículo 9.–*** Consejo Rector.

1.– El Consejo Rector es el órgano superior de decisión, administración y control de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo y tendrá la siguiente composición:

